



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA							Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	NATURA ZIENTZIA							DATA	2018-2019
MAILA	1. ZIKLOA								

1

ARLOAREN GUTXIENEN HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

- Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren osasun-ohitura eta nork bere burua zaintzeko ohiturekin bat eginez jokatzeko; giza gorputzaren aukerak eta mugak errespetatuz, eta banakoen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartuz eta errespetatuz. Osasuna gizabanakoaren eta komunitatearen ondasuna dela ulertaraztea da horren guztiaren helburua.
- Gizakiak ingurunean egindako esku-hartzeen zenbait adierazpen aztertzea, eta horiek iraunkortasunaren parametroetatik kritikoki balioestea, betiere, eguneroko bizitzan oreka ekologikoa defendatzearen eta berreskuratzearen, eta kultura-ondarea zaintzearen aldeko jokabideak bultzatzeko.
- Ikaslearen inguruko natura-, gizarte- eta kultura ingurunean denboraren poderioz gertatutako aldaketa eta eraldaketak hautematea eta kritikoki balioestea, eta aldaketa horien aldiberekotasun- eta segida-harremanak aztertzea, hortik eratorritako ezagutzak gainerako memento historikoak ulertzeko unean aplikatzeko.
- Ingurune hurbileko elementu esanguratsuekin lotutako galdera eta arazoak identifikatu, pentsatu eta konpontzea, informazioa tratatzeko eta bilatzeko estrategiak erabiliz, hipotesiak adieraziz, eta horiek frogatuz, irtenbide alternatiboak aztertzeke eta ikaskuntza-prozesuari berari buruz hausnartzeko
- Gatazkaren existentzia onartzea; ezberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldeen barne-aldaketarako faktore gisa erabiltzea, tratu txarrak eta jazarpenak eragozteko eta bizikidetzaren onuragarria lortzeko.
- Berezko nortasuna eratzeko, norberaren lorpen-, esfortzu- eta hobetze-motibazioa sustatuko duten estrategien alde eginez, gizaki autonomo eta besteekin harremanean ari den gizartekide gisa garatzeko



2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 1. MAILA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	1.PROIEKTUA Gizakiak eta elikadura <ul style="list-style-type: none"> Izaki bizidunak: bizitza zikloa eta ezaugarriak. Gorputzeko atalak Zentzumenak. Giza gorputzaren Aparatuak : Digestio aparatua, Arnas aparatua, Zirkulazio aparatua, Iraitz aparatu. Zentzumenak Elikagaiak:Gizentasuna menu osasungarriak ohitura osasungarria 	2.PROIEKTUA Animaliak <ul style="list-style-type: none"> Izaki bizidunak: bizitza zikloa eta ezaugarriak. Animalien ezaugarriak Animalien sailkapena ; Jaiotzaren arabera: obiparook eta bibiparook Bizimoduaren arabera: etxeokak eta basatiak Elikaduraren arabera: haragijaleak, belarjaleak eta orojaleak. 	3.PROIEKTUA Landareak <ul style="list-style-type: none"> Izaki bizidunak: bizitza zikloa eta ezaugarriak. Landareen atalak : sustriaiak, enborra edo zurtoina, adarrak, hostoak eta fruituak. Gizakiak nola eta zertarako erabiltzen dituen landareak. Landare basatiak eta landare landatuak. Fruta-zuhaitzak

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 2. MAILA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	1.PROIEKTUA Gizakiak eta elikadura <ul style="list-style-type: none"> Gorputzeko atalak sakondu: Hezurak, Muskuluak, Artikulazioak, Zentzumenak. Aparatuak sakondu: Digestio aparatua, Arnas aparatua, Zirkulazio aparatua, Iraitz aparatua. Elikadura <ul style="list-style-type: none"> Elikagaien piramidea: Proteinak, Koipeak, Karbohidratoak, Bitaminak, Mineralak. 	2.PROIEKTUA Animaliak <ul style="list-style-type: none"> Animalien ezaugarriak. Animalia ornodunak eta ornogabeak. Animalia ornodunen 5 taldeak: Ugaztunak, Hegaztiak, Arrainak, Narrastiak, Anfibioak. Animalia ornogabeak: Lehorrekoak eta Uretakoak. 	3.PROIEKTUA Landareak <ul style="list-style-type: none"> Landareen atalak sakondu. Landareen atalen funtzioak azaldu. Landareen sailkapena zurtoinaren arabera. Landare lore-dunak eta lore-gabeak. Landareen erabilera (senda-belarrak, lurrinak...)

**EBALUAZIO- IRIZPIDEAK**

- Inguru fisikoko oinarrizko elementu eta baliabideen adibideak jartzea (eguzkia, ura, airea, lurzorua); haiek pertsonen bizitzarekin duten harremana eta haiek modu arduratsuan erabiltzeko beharraz jabetzea
- Oinarrizko irizpideak erabiliz, norberaren inguruko animalia eta landare garrantzitsuenak ezagutu eta sailkatzea, bai eta hainbat bide erabiliz lortutako informazioari esker ezagunak diren beste zenbait espezie ere.
- Higienearekin, elikadurarekin, jarduera fisikoarekin, atsedenarekin eta norberaren emozio eta sentimenduak kontrolatzearekin zerikusia duten praktika mesedegarrien adibideak jartzea, eta horiek osasunerako, ongizaterako eta gorputzaren funtzionamendurako.
- Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoen arauak jarraituta zenbait tresna eta erregistro argiak erabiliz.
- Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzen da helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzen ditu, eta ez du onartzen, taldekideen arteko berdintasuna abiaburu hartuta, inolako bereizkeriarik.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluaketa jarraia egingo da. Nahiz eta irakasgai bakoitzak bere berezitasunak izan, orokorrean kontutan izango ditugun irizpideak hauek izango dira:

- Edukiak: %60
- Prozedurak eta jarrera: %40
 - Etxeko lanak ondo egitea eta ikastea.
 - Garbitasuna eta materialaren zaintza.
 - Egunerokoan parte hartzea eta besteak errespetatzea..
 - Irakasgaiarenganako jarrera.
 - Talde lanetan, modu egokian elkarlan egitea.
 - Euskararen erabilera.